

EUSKARAZ BIZITZEKO

PIZ KUN DEA

Abenduaren

27an

EKITALDIA

BILBAO ARENA · 17:00

Amets Aranguren · Anari · Ane Labaka · Benizze
Eduarne Azkarate · Flako Fonki · Gontzal Mendibil · Gorka Urbizu
Itziar Ituño · Joseba Tapia · Maia Iribarne · Mejillon Tigre
Miren Gaztañaga · Miren Narbaiza · Ramon Agirre
Sustrai Colina ... eta gehiago



EUSKAL GINTZAREN
KONTSEILUA

www.pizkundea.eus

Euskararen etorkizuna jokoan dago. Azken datuen arabera, euskal hiztunen % 17,5 baino ez dira egunerokoan euskara erdarak baino gehiago erabiltzen dutenak, eta euskararen presentzia ahultzen ari da kalean, eskoletan, pantailetan.... Ezer egin ezean 11 urte barru euskara arnagunerik gabe gelditu daiteke.

Hauek guztiak euskararen **egiturazko minorizazioaren ondorioak** dira. Azken hamarkadetan euskararen biziberritze prozesuak aurrerapen handiak izan dituen arren, ofizialtasunaren ukazioak, euskararen aldeko hizkuntza politikak eraisten ari diren oldarraldi judizial, politiko eta mediatikoa, globalizazioak eta bizitzaren digitalizazioak, zein bestelako erronka berriek **euskara eta euskal hiztun komunitatea larrialdi linguistikoan** jarri gaituzte.

Ezinbestekoa da, euskara kinka larrian izan den beste momentu batzuetan bezala, berriro ere **euskaltzaletasunaren giharra indartzea**. Izan ditugu lehenago ere larrialdi gorriko uneak, behin betiko itzaltzeko arrisku momentuak. Eta aldi bakoitzean **milaka euskaltzaleren bulkada, erabaki eta ekimenetik** etorri dira Pizkundek; une kritikoetan elkarrekin aritzeko eta egiteko izan dugun gaitasunetik.

Baina itxaropena ez da zain egotea. **Itxaropena egitea da**. Beraz, ekiteko garaia da. Ekar dezagun euskara berriz ere gure lehentasunetara.

Abenduaren 27an elkartu gaitzen euskaltzale guztiok:

- Euskaltzaleon indar eta batasunaren erakustaldi bat egiteko.
- Euskal jendarte osoari mezu argi bat helarazteko: euskara guztion ardura dela.
- Hizkuntza-politikan jauzi sendo bat bultzatzeko.

Etorkizuna dago jokoan. Euskaltzaleon garaia da!

SARRERAK: www.pizkundea.eus

